

# PASS'ARAN: MUGARIK GABEKO IBILBIDEA



Testua eta argazkiak  
Izaskun Estibaritz Astarloa -  
Jose Inazio Izagirre Izagirre

■ Estanh Long eta Mont Valièr

**2011ko udan gaude.** Egun gutxi batzuk libre ditugula jakin ondoren, burua lanean ipini behar dugu: nora joan?, zer egin? Pirinioetan bost-sei eguneko zeharkaldiren bat egitea ez litzateke gaizki egongo. Pirinioak, bi isurialdeetatik nahiko ondo ezagutzen ditugu, Kataluniakoak izan ezik. Beraz, ea zerbait interesantea aurkitzen dugun han zehar. *La Porta del Cel* gustukoa da, baina igarotzen diren toki batzuk dagoeneko ezagutzen ditugu. Interneten saltseatzen, *Pass'Aran* azaldu zaigu: ingurua ezezaguna da eta, gainera, gailur enblematiko batzuk igotzeko aukera ematen du. Beti erakarri gaituzte Mont Valièr, Tuc de Maubèrme eta abarrek, baina oso urruti geratzen zaizkigu aste bukaerako irteera arrunt batean joateko. Informazio gehiegi ere ez dugu aurkitu, baina ikusi dugunarekin nahikoa da. Erabakia hartuta dago.

**Pass'Aran ibilbidea inguru ezezagunetan zeharkaldi eta igoera berriak egiteko aukera da**

Webgunea aztertu ondoren, Montgarriko aterpera deitu eta informazioa eman digute. Gainera, forfaita hartzen badugu, beraiek arduratzen dira aterpeetako erreserbak egiten. Baiezkoa eman eta prestaketekin hasi gara. Lau izango gara azkenean, Arrate eta Aitor lagunak era animatu baitira.

Horrela, bada, abuztuaren 16an autoz abiatu, muga zeharkatu eta Pirinioen iparraldetik Vielharainoko bidaia egin dugu. Handik gora, Beret igarota, Montgarriko aterpera heldu gara.

Aterpean, inskripzioa egitean, mapa eta izara-zakua eman dizkigute, baita ibilbideari buruzko informazio gehiago ere. Bertatik irtenda ibilbidea egiten beste hirukote bat besterik ez dagoela eta, gailurrei buruz galdetean, esan digute ibilbidearekin batera oraindik ez dituela inork egin, baina indartsu sentitzen bagara, posible dela egitea. Beno, ikusiko dugu... Dena dela, gauean eman diguten afari potentearekin, indartsu sentitzen gara goizean goiz irteteko.

Zerbezatzoxa eskuetan, berehala pasatzen zaigu ilunabarra toki lasai honetan. Nahiz eta arratsaldean joan-etorrian jende ugari ikusi dugun, gauean oso gutxi geratu gara eta oso gustura gaude solasaldian digestioa egiten dugun bitartean.

## 1. Etapa:

**Amics de Montgarri aterpea - Estanhons aterpea (Tuc de Barlonguèra, 2802 m)**

**Denbora: 6-8 ordu. Desnibela 1240 m igo / 760 m jaitsi**

**(+ 300 m Tuc de Barlonguèra)**

**Markak: Mugan zehar doan GR 10**

Aterpean lo egin eta gosaldia ondoren, goizeko 8etan abiatu gara eguraldi ederrarekin. Hasieran GR markak jarraitzen ditugu,

**Izaskun Estibaritz Astarloa** (Elgoibar, 1956), **Jose Inazio Izagirre Izagirre** (Elgoibar, 1957): txikitik Euskal Herriko mendietan ibiltzen hasi eta bidaiatzea ere atsegin dugula, beste lurralde askotara heltzea lortu dugu denborarekin, batez ere, Picos de Europa eta geure Pirinio kuttunak nahiko ondo ezagutzeraino. Era berean, espainiar estatuko beste mendikate eta inguruetara ere heldu gara, baita Alpeak, Dolomitak, Norvegiako Alpeak, Atlas, Kilimanjaro, Hego Amerikako Misti, Aconcagua, Sajama, Parinacota... eta Nepaleko trekkinen bat ere.





■ Montgarri: hemen hasi eta amaitu dugu ibilaldia

kokatze dotorea ere ikusten dugu. Port dera Girèta-tik behera Port de Barlonguèra izeneko lepora heldu gara. Bertan bidegurutzeara dago, ezkerretik Riberòt aldera jaisteko, eskuinean guk jarraitu behar duguna, eta atzean utziko dugun Montgarrira itzultzen dena. Hemendik berehala gaude gaurko toki ederrenean: Estanh Long lakua zoragarria da, bere uren kolore urdin iluna, babes bezala alboetan dituen tontorrak, eta eskaintzen duen lasaitasunak bertan geratzeko gogoia ematen du... Baina segitu egin behar da. Lakua zeharkatzeko soka finkoek ekipatutako tarteak daude eta gora eta behera ibili behar da. Zeharkaldia bukatu ondoren, Estanhons aterpea gertuago ikusten dugu, baina bertara heltzeko 200 bat metro beherago dagoen Estanh Redon lakura jaitsi eta, gero berriz ere, 200 metro gora egin behar dira. Pazientzia apur batez eta aterpeko erosotasunak zain ditugula jakinda, gogoz ekin diogu azken zati aldapatsu honi.

Horrela, 8 bat ordu ibili ostean, Estanhons aterpera heldu gara. Beteta dago baina oso ondo hartu gaituzte. Stephane zaintzaileak gaztelaniaz hitz egiten du. Bere bizitza, mendi gidari bezala egiten dituen lanak eta beste historia asko kontatu dizkigu. Laurontzako gela bat, dutxatzeko aukera eta afari ederra ardo eta guzti. Zer besterik behar dugu, bada, gustura egoteko?

Bada... ilunabar espektakular batez gozatzeara. Eta horrela izan da. Afalostean, kanpoaldean elkartu gara denok eguzkiak behelainoekin ezkutaketan jolasten zuen bitartean, zerua kolore gorrixkaz apaindu denean. Sekulako eguna izan dugu: zeharkaldia ondo hasteko era aparta, benetan.

## 2. Etapa:

**Estanhons aterpea - La Maison du Valièr (Mont Valièr, 2838 m)**

**Denbora: 6-7ordu. Desnibela 250 m igo / 1500 m jaitsi (+ 600 m Mont Valièr)**

**Markak: Askatasunaren bidea + GR 10**

Gaur goizerako ekaitza dago iragarrita eta badirudi horrela izango dela. Hodeiak, hai-

zea... Denetarik dago. Zerua goibel ikusten da, eta badirudi euria ere badatorrela. Baina Mont Valièr bertan daukagu eta gailur enblematiko hau igo nahi dugu. *Arièjako jauna* izenez da ezaguna. 600 metroko desnibela du eta apur bat azkar ibilita... ea suertea daukagun. Beraz, motxila txikiak prestatu eta bidean gora abiatu gara. Egoera ikusita, aterpean gaua igaro duten askok ibarrerako bidea hartu dute eta gutxi batzuk besterik ez goaz gorantz. Bidea oso nabarmena da eta ez dauka zailtasunik, baina ekaitza gero eta gertuago dago. Faustin lepora (2653 m) heldu garenean, trumoiak gain-gainean entzuten ditugu. Lepo honetara heltzen da neguan erabiltzen den ekialdeko korridorea. Ekaitzak ekaitza, gailurrera heltzea lortu dugu. Argazki batzuk atera eta berehala goaz beherantz arinetan, trumoiak eta tximistak gertu baititugu. Gorantz abiatu diren batzuk ere behera itzuli dira eta oso talde txikia elkartu gara tontorrean. Berriz aterpera jaitsi behar da eta nahiko azkar egin dugu bidea, euria eta haize boladak jasaten. Aterpera heldu garenerako eguraldia hobetzen hasi da eta arropak lehortuta heldu gara azkenean. Hemen berriz motxilak prestatu eta, aterpeko zaindari jatorrak agurtu ondoren, ibilbidea jarraitu dugu.

Còl de Pecoth lepora igotzeko 250 metroko desnibela gainditu behar da eta gero dena beherantz. *Askatasunaren bidea* esaten zaio bide honi, hemendik igarotzen baitziren nazien eskuetatik Espainiara ihes egiten zutenak. Bigarren mundu gerraren garaian Frantziako hegoaldeko alde egin eta Kataluniako lurraldeetara heltzeko bide batzuk urratu ziren Pirinioan zehar eta horietako bat dugu hau. Nahiz eta Espainiako gerra zibillaren ondokoak gose denborak izan, bonben eta deportazioen beldurrez, frantsesak, juduak eta ingeles nahiz amerikar pilotuak ere elkartu ohi ziren muga zeharkatu eta nazien atzaparretatik alde egiteko. Zenbat istorio eta oinaze ez ote den inguru hauetan ezkutaturik egongo?. Gu, lasai eta eguraldi ederrarekin, Mont Valièr gainean daukagula, harrizko basamortu honetan oso ondo markatuta dagoen bidean behera goaz. Horrela, Estanh



de Milogar lakuetara heldu gara eta, eguzkiak ederki berotzen duenez, beheko lakuan bainu ederra hartu eta bazkaldu egingo dugu.

Orain jaitsiera potentzia geratzen zaigu, zuiloan dagoen ibar sakoneraino heldu behar dugu eta. Barranc d'Auen sakanean behera egingo dugu, lore ugarietz apaindutako ibaixkak zeharkatuz eta urjauzi ederrak ikuskatuz. Gero, beheko partean, baso ederra batean sartu eta han zehar doan bide dotoretik egingo ditugu Maison du Valièr dagoen ibarrrerainoko azkenengo metroak.

## Maison du Valièr luxu handikoa iruditu zaigu, baina ez gara kexatu

Harrituta geratu gara ostatu honekin, ez baita aterpe arrunt bat: luxu handia iruditu zaigu mendi zeharkaldi bat egiten egoteko, baina ez gara kexatu: zerbezak, edredoidun oheak, jatetxea... Denetarik dago. Hor lasai gaudela indarrak berreskuratzen, lau emakume agertu dira, motxila txiki eta friki itxurarekin. Nondik ote datozen galdetu diegu eta Montgarritik datozela, *Pass'Aran* burutzeko asmoa dutela erantzun digute. Hasieran katxondeoz zeudela pentsatu dugu baina gero, lasaiago hitz egiten, Ventosa Calvell aterpeko zaindaria eta langileak direla eta zirkuia egiten dabilzala esan digute, nahiz eta lehenengo bi etapak egun bakar batean egin. Oso harreman ona izango dugu haiekin ondorengo hiru egunetan.

Ondo afaldu dugu eta katalanekin solas atseginean aritu ondoren, edredoiaren azpirako bidea hartu dugu. Hamar bat ohe dituen gela handi bat daukagu laurontzat. Luxua beraz.



■ Mont Valièr tontorrean

■ Tuc dera Girèta-ko gailurrerian. Atzean Tuc de Barlonguèra

### 3. Etapa:

#### La Maison du Valièr - Eilia-ko gîte d'étape

Denbora: 8-10 ordu. Desnibela 1600 m igo / 1600 m jaitsi

Markak: GR 10. Mendi ertaineko eguna

Gaur *M* bat egin behar dugu: 900 m gora, 870 m behera, eta beste 800 m gora eta 850 m behera. Gailurririk ez dago gaurko iibil bidean, baina desnibelak bai. Gainera bero handia dago iragarrita. Beraz, goiz abiatu gara.

Lehenengo pausuak basotik ematen ditugu, GRa jarraituz. Nahiz eta malda handia egon, ondo egiten dira. Basotik irten ondoren, Era Artiga eta Trapèth deth Miege txabon-

etatik igaro behar da (azken honetan iturri ederra dago), eta bihurgune arraro xamar bat egin ondoren, Còth de Part-era helduko gara. *M*-aren lehenbiziko gailurrean gaude. Atzean, besteak beste, aurreko bi egunetan igo ditugun bi mendiak ditugu, eta aurrean, Malh de Bolard eta *M*-aren bigarren gailurra. Baina horretarako lehenbizi sakonera jaitsi behar dugu eta gero berriz galdutako altuera berreskuratu.

Lasai goaz beherantz, belardi irekietatik hasieran, Besset-eko basora sartu arte. Basoa bukatu, Òrla erreka zeharkatu, eta Pòrt der Aret-era igotzen hasi gara. Eguerdia da, ibarrean ez dago haizerik eta bero handia egiten du. Gainera, malda pikoa da eta tarte ur tragotxoak edateko geratu beharra daukagu. Gero, artzain txabola batzuetatik

igaro eta lepoa erdietsi dugunean, lasaitasun ederra somatu dugu. Goian haizekirria dago eta, atsedena hartu bitartean, zerbait jan eta edateko baliatzen dugu unea. Hemen gaudela, bi mendizale agertu dira mendi bizikletak eskuz bultzaka. Frantsesak dira eta berehala abiatu dira beherantz. Meritu handia dute eremu menditsu hauetatik ibiltzeko. Oso bide tekniko eta zaila iruditu zaigu bizikletarako, baina argi dago batzuentzat ez dagoela oztoporik. Hemendik aurrera dena da maldan behera Eilia-raino. Nik irrika handia daukat izen dotore horren atzean zer egongo ote den ikusteko.

### Eilia-ra hurbildu ahala, meatzaritzaren aztarnak hasi dira agertzen

Errododendro eta mirto landare artean doa bidea eta meatzaritzaren aztarnak ere hasi dira agertzen. Bat-batean txabola multzoak agertu zaizkigu eskuinaldera eta oso irudi ederra osatzen dute, inguruarekin harmonia handia erakutsiz: Eilia herrira hurbiltzen ari garen seinale. Eta horrela da, laster ikusi dugu herria haranaren bukaeran. Gauden lekutik ikusita, toki idilikoa dirudi. Horrela, bada, berehalaxe heldu gara herrira eta, erreka igaro ondoren, borden artetik gaurko aterpera hurreratu gara. Gîte d'étape dotorea da, bi logela handi eta tresneria guztia duen sukaldeaz osatua. Logela handi batean, Ventosa i Calvell-eko lau neskek eta guk laurok egingo dugu lo. Beste logela beteta dago. Afaltzeko, 200 metrotara dagoen nagusien etxera joan behar da. Lurrak emandako produktuekin afari ederra eman digute, ardo eta guzti, giro ezin hobean. Oso pozik gaude. Lau neska katalanekin harreman estua egiten hasi gara. Beno, egia onartuta, bat madrildarra da, beste bat errioxarra, hirugarrena italiarra eta laugarrena argentinarra.

Hurrengo bi egunetarako ere eguraldi eguzkitsua baina oso beroa dago iragarrita. Ondorioz, solasaldi laburra eta ohera joan gara azkar, bihar goiz altxatu beharra baitago.

■ Harmonia handia eskaintzen dute Eiliako etxolek



## 4. Etapa:

### Eilia / Aranh-go aterpea (Tuc de Crabèra, 2632 m)

Denbora: 4-6 ordu. Desnibela 1320 m igo / 330 m jaitsi (+ 600 m Tuc de Crabèra)

Markak: GR 10. Meatzaritzako bidea

Goizean goiz abiatu gara, gaurko egun be-roena dago iragarrita eta. Hasieran basotik goaz, malda handia duen bidetik, baina freskuran ondo joaten da. Bòsc de Roge basotik atera eta irudi kuriosoak sortzen dituen meatzaritzako tresneria artean egingo dugu gora. Lepotxo batera heldu eta Ventalhongo meategiak ikusiko ditugu aurrez-aurre. Bertatik pasatu behar dugu. Etxola handi ugari daude, nahiko egoera eskasean eta tokia apur bat makurra da. Pista bat ere heltzen da bertaraino eta noranahiko beste batzuk daude inguruan. Jendea dago eta badirudi bertan egin dutela lo. Guk aurrera jarraitzen dugu, jadanik erdietsi behar dugun lepoa begi bistan, eta zelai artetik doan gorako bideari ekiten diogu. Orain igoera lasaia da eta laster heldu gara Còth d'Aranh lepora. Panorama dotorea daukagu beste aldean: Estanh d'Aranh lakua eta aterpea 300 bat metro beherago, eta Tuc de Crabèra haien gainean.

Lepoan atsedean apur bat hartu ondoren, beherako bideari ekin diogu. Lakuko presa zeharkatu eta igoera labur baten ostean, Aranh-go aterpera heldu gara. Kanpotik ikusita modernoa dela dirudi, metalezko plantxa marroiz estalita, baina oso barrualde eroso dauka. Zaindariaekin ohiko tramiteak egin,

zerbait jan eta, oraindik goiz denez, gaurko mendi tontorra zapaltzeko asmoz aterako gara. Bertan dagoela dirudi, baina zaindaria abisatu digu lasai hartzeko, ordu eta erdiko igoera edo badela eta. Beraz, Pòrt d'Aueran lepora doan bide lasaia jarraitu eta lepoan ezkerredera hartu dugu azkenengo pala igo-tzeko. Pala hau luzea da eta malda handia dauka: arrazoia zuen aterpeko zaindaria, baina azkenean Tuc de Crabèra gailurrean gaude (2632 m). Zerua kargatzen doala konturatzen gara. Hala eta guztiz, daukagun panoramaz gozatzeko denbora hartu dugu: Mont Valièr, Maladeta-Aneto mendikatea eta, gertuago, Tuc de Maubèrme. Ibilaldia era bikainean bukatzeko, egi bihar hori igozteko lortzen dugun.

## Pala luzea eta malda handikoa da Tuc de Crabèra gailurrera doana

Jaistearekin euri tanta batzuk erori dira, baina laster lortu dugu aterpera heltzea. Hemen berriz ere katalanekin elkartu gara eta, haiekin txantxa batzuk trukatu ondoren, denok batera afaldu eta pare bat zerbeza hartu dugu. Gero lotara, biharko etapa luzea delako eta Tuc de Maubèrme igo ere nahi dugunez, oso goiz ateratzeko asmoa daukagu eta.

## 5. Etapa:

### Aranh-go aterpea / Amics de Montgarri aterpea (Tuc de Maubèrme, 2880 m)

Denbora: 7-10 ordu. Desnibela 800 m igo / 1100 m jaitsi (+ 250 m Tuc de Maubèrme)

Markak: Mugarriak + GR 211. Etapa luzea, goi mendiko landugabetik

Eguna argitu baino lehen atera gara aterpetik. Lehenbiziko eginbeharra, atzo igarotako Còth d'Aranh lepora igozteko da: 300 metroko garaiera alde baina, goizeko freskuran, ondo igo ditugu metro horiek. Mendi lepoan egunsenti dotorea ikusteko aukera izan dugu. Ondoren, Estanhets d'Albi lakutxoetara joan behar da, zati lasai batean gora. Goiko lakuaren gainean geratzen da Portilhon d'Albi mendatea eta hemendik ikusita horma bat dirudi. Gerturatzean, ordea, harkaitz artean ondo markatutako bidexka ikus daiteke. Horrela erdiesten dugu mendatearen gaina eta bertako laku polita. Beste aldean, Liat-eko laku ederrak eta Tuc de Maubèrme-raino doan harana agertzen zaizkigu. Urruti dagoela dirudi...

Orain zeharkaldi apur bat deserosoa egin behar dugu, baina haranera jaisten garenean gozamina da bertako zelaietatik ibiltzea. Tuc de Maubèrme-ra hurbiltzean, izen bereko lakutxoekin egiten dugu topo. Toki dotorea da eta, gainera, ostertzean Posets-Perdiguero, Russell-Aneto-Maladeta, Montardo-Besiberri eta halako mendikate nagusiak agertzen zaizkigu eder. Gertu daukagu Maubèrme-ra igo-

■ Còth d'Aranh lepotik lakua, aterpea eta Tuc de Crabèra



■ Tuc de Maubèrme-tik jaistean Liat-eko lakuak





Apollonio, un  
 de una redac  
 que descomu  
 de acompa  
 de Pisco.

torre (871  
 h 45)

que pasó por  
 en la zona de  
 Bergua. Con  
 con el 1911  
 que volvió a  
 su vida inter  
 de la despo  
 vancia. Parale  
 de esta con  
 un edificio y  
 de un m

■ Lac de  
 Montoliu  
 eta atzean  
 Tuc de  
 Maubèrme

tzeko bidea. Beraz, bidera heldu, pisua motxi-  
 letatik kendu eta, motibazio handiz, mendian  
 gora goaz. Bide gogorra da, entrenigarria,  
 harri artean gora doana, baina zailtasunik ez  
 daukana. Azkenengo zatian eskuak ere erabili  
 behar dira, batez ere aristara irteterakoan,  
 baina berehala heltzen da tontorrera. Nola ez:  
 daukagun ikuspegia izugarria da. Egun haue-  
 tan egin ditugun beste gailurrak eta Pirinioe-  
 tako erraldoi asko eta asko ditugu ikusgai.  
 Goatzeko momentua da eta horixe da egiten  
 duguna. Oraindik jatsiera luzea geratzen  
 zaigu, baina honaino egin duguna zoragarria  
 izan da eta oso pozik gaude.

Kontu handiz jaitsi dugu goiko zati mal-  
 kartsua eta motxilak berriz prestatu ondoren,  
 Lac de Montoliu-ra doan bidea hartu dugu.  
 Laku hau ederra da, Tuc de Maubèrme-ren  
 azpian dagoen zirku batean kokatua. He-  
 mendik parean dagoen Còth de Montoliu le-  
 pora igo eta, orain bai, dena izango dugu  
 beheranzko bidea. Berriz elkartuko gara lau  
 katalanekin eta haiekin batera egingo dugu  
 Montgarrira heltzeko geratzen zaigun bidea.

Aterpera heldu garenean, bertako ardura-  
 dun Quim-ekin egon gara. Oso ondo portatu  
 da gurekin: dutxatzeko aukera eman digu, as-  
 kari ederrera gonbidatu eta, gainera, inguruan

egindako gazta goxoak ere jaso ditugu opari.  
 Solasaldi aberatsa izan dugu berarekin eta da-  
 goeneko gure lagun bihurtu diren lau emaku-  
 meekin. Eta horrela, oso giro atseginean  
 bukatu dugu *Pass'Aran* ibilaldi eder hau. □

## Montgarrira heldu eta giro atseginean bukatu dugu Pass'Aran ibilaldia



### GOGOETAK

Ibilaldiaren abiapuntua edozein izan daiteke. Guk Montgarrira aukeratu genuen, egokiena iruditu zitzagulako eta guretzat errazena bertara heltzea zelako, baita gero, bukatutakoan, Jaka aldera etorri nahi genuelako ere.

Ibilaldiari buruz, aipatua dugu gailurretara heltzea aukerakoa dela. Guk horrela egitea erabaki genuen eta, gure ustez, oso osagai interesgarria da. Aurretik ez genituen mendi hauek ezagutzen eta aukera ezin hobea izan da ibilbide hau. Mendian ibiltzen ohituta egonda eta forma fisiko on batekin, erraz egin daiteke dena. Mendi interesgarriak dira, ez dira zailak eta begi bistako paisaiak gehiago zabaltzeko aproposak. Lehenengo etapako Tuc de Barlonguèra igoz ez bada, Pòrt dera Gireta lepora joan behar da zuzen, markatuta dagoen bidetik. Mont Valièr, Estanhons-etik igo eta bertara jaisten da joan-etorrian. Tuc de Crabèra ere berdin, Aranhgo aterpetik gora eta bertara jaitsez. Eta Tuc de Maubèrme, azken etapako bidearen ondoan dago.

Esan dugun bezala, aterpeetan oso harrera ona izan genuen eta, lau pertsona izanda, gela bat izan genuen guretzat bakarrik, Eilia-ko gîte d'étape-n izan ezik. Mont Valièr ezaguna dela eta, Estanhons-era jende asko joaten da, baita Aranh-era ere, Tuc de Crabèra-gatik.

Gainerakoan, ibilbidean oso jende gutxi ikusi genuen eta gailurrei dagokienez, Maubèrme-n eta Crabèra-n bakar bakarrik egon ginen. Barlonguèra-n mendizale batekin egin genuen topo eta Mont Valièrren, ekaitzagatik, dozena erdi batekin.

### DATU GEHIGARRIAK

**Mapa:** Montgarrin eman zigutena, *Pass'Aran* izenekoa.

**Materiala:** Izara-zakua Montgarrin eman ziguten, inskripzioak barne hartzen baitu. Bestela, ezer berezirik ez da behar. Udan Pirinioetan ibiltzeko gauza arruntak: bastoiak, egunean zehar pikatzeko zerbitu, frontala, aldatzeko arropa, toalla... Ura ez da falta bidean.

**Informazioa:**

<https://passaran.wordpress.com/>

<http://mendipitxinkolore.blogspot.com.es/>

**Data:** 2011ko abuztuaren 16tik 21era.

**Partaideak:** Arrate Zubia, Aitor Argarate, Izaskun Estibaritz eta Jose Inazio Izagirre.